

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Jiménez lehendakariordeak Industria Hazteko eta Garatzeko Plataformari harrera egin dio

Bere laguntza eman die eta "balio erantsi handiko industria-sektoretan pizgarri publikoak sustatzeko beharra" azpimarratu du

Martes, 17 de abril de 2012

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilari Roberto Jiménez-ek Industria Hazteko eta Garatzeko Plataformako bi ordezkari harrera egin die gaur goizean, Nafarroako Jauregian.

Zehazki, honako hauekin bildu da: Espainiako UGTren Metal, Eraikuntza eta Antzekoen (MCA) Federazioko idazkari nagusi Manuel

Fernández "Lito"-rekin; Nafarroako haren homologo Lorenzo Ríos-ekin; MCA-UGTko Politika Sindikal eta Sektorialeko idazkari Carlos Romerorekin eta Nafarroako UGTren Ekintza Sindikaleko idazkari Jesús Santos-ekin.

Bilkuran Jiménez lehendakariordeak ekimen horri laguntza ematen diotela adierazi du. Halaber, nabarmendu du "balio erantsi handiko industria-sektoretan pizgarri publikoak bultzatzeko beharra dagoela, eta kontzertazio soziala errekuperatzeko premia ere dagoela, Nafarroaren garapenerako funtsezkoa izan dena".

Bestalde, plataformako ordezkariak aipatu dute "politika publikoek industria-sektore sendo, gogor eta dibertsifikatu bat lortzeari arreta berezia jarri beharko lioketela, oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko gai direnak". Azaldu dutenaren arabera: "Ezinbestekoa da hazkunde ekonomikoaren eredu-aldaketa bat, hazkunde ekonomikoari indarra eta sendotasuna emango diona BPGaren osaeran industriari pisu handiagoa emanez".

Ekimen hori bere ordezkarien eskutik zuzenean ezagutu ahal izan duen Espainiako lehen erakundea da Nafarroako Gobernua; ekimen hori ekintza-kanpaina baten esparruan kokatzen da, industriaren Europako sindikatuak zuzentzen du eta CCOOeko Industria Federazioarekin partekatutako estrategia batekin. Sindikatu etako buruek ere plataforma Foru Parlamentuan aurkeztea aurreikusten dute ekimen honen inguruan alderdi politiko guztiei laguntza eskatzeko.



Ezkerretik eskuinera: Jiménez lehendakariordea eta plataformako ordezkari Jesús Santos, Lorenzo Ríos, Manuel Fernández eta Carlos Romero